

# Bero-beroan

## Plaentxi.com

**SORALUZKEKO (GIPUZKOA)** Pil-pilean Euskara Elkarteak sortu du Plaentxi.com web gunea. Herriko taldeek elikatutako informazio eta iritzi bilgune izatea nahi dute elkartekoek. Egutero pare bat albiste sartuko dituzte, albisteez iritzia emateko aukera eta agenda izango ditu.

## Aleman eta Lakarra euskaltzain oso

**SAGRARIO ALEMAN** etxalekuarrak (Nafarroa) eta Joseba Lakarra arraztuarrak (Bizkaia) Euskaltzaindiaren osoko bilkuran gehiengo osoak lortu zituzten eta, beraz, euskaltzain oso izango dira hemendik aurrera.

## NUPEk Euskara Saila sortu du

**JULIO LAFUENTE** da Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektore berria eta gobernu taldea aurkeztu duenean

esan du euskara gai “konplexua” denez Euskararen Sustapenerako Saila sortua dutela. Sailaren egiteko nagusia aurreko errektoretza taldearen Euskararen Plan Estrategikoa garatzea izango da.

## Ikasleen euskara maila hobetzeko neurriak HUHEZIn

**MONDRAGON UNIBERTSITATEKO** HUHEZI fakultatean sumatu dute hainbat ikaslek ez duela euskara maila egokirik eta hobekuntza plana abian jarri dute. Irakasle ikasketak egiten ari diren ikasleei Europako araudiaren arabera C1 maila eskatuko diete (EGAREN paretsu) eta Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleei C2 maila. Hala eskatu duten ikasleei maiatzean eta ekainean probak egiten ari zaizkie daukaten maila zehaztu eta laguntzeko. Datorren ikasturtetik aurrera plana osotasunean aplikatuko dute eta maila ez duten ikasleek hobetze lanak hasi beharko dituzte.

## BAHEA

**Alberto Lopez Basaguren EHUko Zuzenbide Konstituzionaleko katedradunak [www.gipuzkoaeuskara.net web gunean](http://www.gipuzkoaeuskara.net/web/gunean) esanak:** “Ospe merezia du Suitzak hizkuntza aniztasunaren babesari dagokionez. Benetan, sakon barneratuta dute han, herrialdea hizkuntza desberdineko erkidegoek osatzen dutela. Eta, beraz, hizkuntza guztiak babes berbera izan behar dutela. Baina, bizitzeko Suitza baino leku nardagarriagoak badira ere, lurlean ez da paradisuirik; eta han ere badira arazoak, batzuetan nahiko gatazkatsu bihurtu direnak. (...) Suitzan aspaldi ‘hizkuntza bakeaz’ mintzatzen da eta esaten dute bake horrek ‘lurraldetasun printzipioa’ duela oinarri. Beraz, lurralde bakoitzean hizkuntza ofizial bakarra izan ohi da, hango hizkuntza, lurraldeko hizkuntza, hain zuzen ere. Suitzan beraz, ez dago hizkuntza ofizial komunik herrialde osoan; ezta, batzuetan, Kantoi bateko lurralde osoan ofiziala den hizkuntza bakarra ere. Gehienak hizkuntza bakarreko Kantoiak badira ere, badira hainbat hizkuntza ofizial dituzten Kantoiak. Horrek ez du esan nahi, berez, Kantoi ofizialak diren hizkuntza guztiak ofizial direnik haren lurralde osoan. Hizkuntza desberdinak kontaktuan daudenean, oro har, Udaleko hizkuntzen egoera da kontuan hartzen dena hizkuntza ofiziala aldarrikatzeko garaian. Gerta liteke, beraz, Kantoi berean, Udal batean hizkuntza bat izatea ofizial eta albokoan, aldiz, beste bat, bakoitzaren egoerak eskatzen duenaren arabera”.

**Karmen Irizar Topaguneko presidentek [Berriari](#) esanak:** “Euskarazko elkarte eta toki aldizkariak duten arazo nagusietakoa ekonomikoa da. Erraza izan daiteke egitasmoak martxan jartzeko diru laguntza lortzea. Baina egitasmoak martxan jartzeko sustatzaile bat behar da, horiek mantentzeko, koordinatzeko, ikusten ez den lan hori egiteko. Eta horretarako ez dute dirurik ematen. Irudipena dugu erakunde publikoek ez dutela euskara elkarten lana bere osoan aitorzen”.

## Hauteskundeen ondorio ekonomikoak

Hauteskunde guztiak dituzte ondorioak. Atal honetan, euskal errealitate sozioekonomikoarekin zerikusia duten hiru nabarmendu-ko ditugu.

✓ Euskal herritarrak, orokorrean, zigortu egiten du diru publikoarekin egindako kudeaketa okerra. Hego Euskal Herrian, EAJri gertatu zaiona, batik bat Gipuzkoan, oso nabaria izan da. EAJ nabarmen jaitsi da, Ogasunarekin erlazioatutako ustezko bi iruzurretan politikari jeltzaleak dira tartean eta boto-emaileetako batzuek ez diote barkatu.

✓ AHT edo Pasaiako kanpo portuaren alde egin duten alderdi politikoen boto gutxiago jaso dituzte aipatutako azpiegiturak egingo diren herrietan.

✓ Finantza-estrategia zenbaitzuetarako gehiengoak eta adostasun

politikoak behar dira. EAEko Aurrezki Kutxen bat-egitea erabaki estrategikoa da. Orain arte ezinezkoa izan da, PPK Gasteizko Udala eta Foru Aldundia kontrolatzen baitzituen eta ez zuen onartzen Vital Kutxak BBK eta Kutxarekin bat egitea. PPK bat-egitea Arabako kutxaren absortzioztat jotzen du. Orain, bai PSEk bai EAJK eta gainerako alderdiek –bat-egitearen aldekoek–, bidea libre izango dute hiru kutxak elkartzeko. PPK, galtzaile denez, ezingo du saihestu. Ikusiko dugu ea gaur egin daitekeena, bihar beste arrazoi politiko batzuegatik, egin ezin dena bihurtzen den. Finantza eta ekonomia ikuspegi guztiak uste dute bat-egitea errentagarriena dela.

Juan Mari Arregi

XABIER LETONA

MALTZAGATIK

## Alternatiba gertuago ikusten da Nafarroan

**DATORREN 16AN** udalak eratu arte zalantza eta nahasketa egunak biziko dira Hego Euskal Herrian. 20an, halaber, Nafarroako Legebiltzarra eratuko da, eta bertan hautatuko da Nafarroako Gobernuko lehendakari berria, baina ordurako jada Iruñeko udalean iragandakoak Nafarroako Legebiltzarrean gertatuko dena iragarriko digu.

San Tomas bezala, Gobernu aldaketa amesten duten nafarrak sinesgaitzak dira, eskuinaren hainbeste urteko nagusitasunaren ondoren, ez da erraza aldaketan sinestea. Nahi baina ezin. Pertzepzioa aldatzen ari da, aldiz, eta dagoeneko aldaketa posible ikusten da. Zenbakiak posible egiten dute; PSNko baseek –Erriberatik Altsasuraino– hala desio dute; NaBai negoziaketarako gaitasuna erakusten ari da; UPNren magalean eroso eta pozarren bizi diren CC00k eta UGTk aldaketaren aldeko barne presioa nozitzen ari dira; eta, garrantzitsuena, UPN eta CDNkoak ez diren gainerako herritar gehienek aldaketa nahi dute. Haize berriaren aldeko hainbeste



Foru Legebiltzarra hilaren 20an eratuko da eta ordurako argi egongo da Puras eta Zabaleta ados diren ala ez.

aldagai eta hala ere sinestu ezinik. Aldaketaren aurkako aldagaien artean bat nagusitzen da nabarmen, Madril, Espainiako agintea, baina erabakigarria izango da. Ez dirudi orain arte autonomia maila eskasa izan duen PSN batetik bestera erabaki ahalmen handiena, beraz, Madrilen dago, baina Ferrazek ere ezingo du, besterik gabe, Sarasate gaineratik pasatu eta kito.

**ESPAINIAKO** gobernagarritasuna periferiako indar nazionalistekin lortutako itun iraunkorren bidez lotzea izan da Jose Luis Rodriguez Zapateroren agintaldiaren ardatz estrategi

koa. Hor kokatzen da Euskal Herriko bake prozesua ere. Eta Nafarroako egoerak hautua egitera behartzen du Zapatero: edo jarraitu periferiako itun horiek lotzen, bide batez euskal auziaren konponbidean giltzarri den Nafarroako gaia kontrolatuagoa izanez, edo PPrean erasoaldiaren aurrean kokildu eta martxoko hauteskunde orokorretan berriz irabazi arte itxaron.

### “LUZEA, ZAILA ETA GOGORRA”

Bake prozesuaren desagerpena iragartzen ari zaizkigun egunotan, suetenaren ostean hainbeste entzun genituen Zapateroren berbak jar litezke mahaiaren gainean. Datorren urteko hauteskunde orokorrak PSOEk irabazten baditu zentzua izan dezakete berbak, bestela jai. Eta ordura arte zer? ETAK, esate baterako, zer egingo du? Barajaseko logikan, atentatu berrien aukera zabalik dago, areago ezker abertzalearen ustez gaur gaurkoz prozesua apurtua dagoenean. ANVren emaitzen logikan, bide politiko soilen indarra da gailendu beharko litzatekeena.

gure!  
arteak  
euskaraz



BFA  
DFB  
Bizkaiko Foru Alkartasuna  
Diputación Foral de Bizkaia